

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresan bezeroekin harreman ona eta erraza izan nahi dugu. Bezeroek laguntza pertsonala izango dute, zalantzak edo arazoak dituztenean zuzenean laguntzeko. Proiektua martxan jartzerakoan, laguntza hasierakoa ere eskainiko diegu hainbat azalpenekin.

Bestetik, webgunearen bidez autozerbitzua eta zerbitzu automatizatuak erabiliko dituzte ikastetxeek, informazioa ikusi, eskaerak egin eta proiektuaren jarraipena egin ahal izango dute. Gainera, komunitate bat sortuko dugu, ikastetxeek ideiak eta esperientziak partekatzeko. Horrela, baterako sorkuntza bultzatuko dugu, bezeroen proposamenak kontuan hartuz zerbitzua hobetzeko.

Harreman horiei esker, produktuarekin lotutako zerbitzu berriak sor ditzakegu, adibidez harpidetza edo tarifa finkoak eta salmenta ondorengo zerbitzuak, eta horrek diru-sarrera egonkorrak emango dizkigu.